

Elgoibar - 1266. zenb.
XXX urtea - 2022-12-02



Taldera batzeko deia

TOKIKOM BARREN



BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

HERRIKO ANTZOKIAN
Abenduak 28, asteazkena, 20:00

Maialen Lujanbio
Sustrai Colina
Alaia Martin
Jone Uria
Aitor Bizkarra

Gai-jartzailea:
Imanol Artola "Felix"

Sarreraren aurre-salmenta: abenduaren 12tik 23ra
Prezioa: 13€ (11€ Elgoibarko Izarrako bazkideek)
Elgoibarko Izarran (09:00-14:00 / 16:00 - 18:00)
943 741 626 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Edurne Izagirre

Psikologoa

Itzali dituzten izar guztiei



***"Hori izan zen barkaezina:
zeure beharrei arreta
jartzen hastea, ausardia
berreskuratu izana"***

I largiak lilura sorrarazten digu; berari egozten dizkiogu marearen gorabeherak, bai eta lurreko biziaren gorabeherak ere: noiz gauden emankor eta noiz gorde behar garen indarrak hartzera. Baina, hotzean pentsatzen baldin badugu, ilargian ikusten ditugun aldaketak, ilberitik ilbeterakoak, galaxia oso baten mugimenduaren erakusgarri besterik ez dira; posizio aldaketak egiten du eguzkiaren argiaren islada tamaina bateko edo besteko ikustea, baina ilargia bera ez da desegin eta birsortzen. Galaxia oso baten mugimenduak nabaritzen ditugu ilargiaren agerpen moduaren bitartez, jakinarazpen sistema baililtzan.

Honelaxe, auzoko eta inguruko guztiek ikusten zuten bera txukun, zintzo, abegikor, eskuzabal, baina zure argiaren islada besterik ez zen. Hortaz konturatzen hasia zinen; behin hasierako lilura gaindituta, eta gertutik ezagutu ondoren bere alderdi ilunena, igarri zenuen zure argia itzaltzen eta zeu eta zeureak berotzeko gaitasuna, apaltzen. Zeure burua gaixotzen sumatu zenuen, eta konturatu zinen bere jarrera aldatu eta kalean erakutsi ohi dituen gaitasun horiek guztiak zurekiko erabili beharrean, gero eta gehiago iluntzen zitzaiola berari begirada zure ahultasunekin; iluntasuna eta hoztasuna besterik ez zenituen jasotzen harengandik.

Berarengandik behar zenuen erantzunik jasotzen ez zenuela ikusita, lotsa gainditu eta urteetan deitu ez zenion lagun minari deitzera ausartu zinen; zulotik kanpora begiratzen ea norbait bazegoen, zeure argia elikatuko zuen norbait.

Horixe izan zen barkaezina: zeure beharrei arreta jartzen hastea, zeure ausardia berreskuratu izana eta zeure eskuzabaltasun eta abegikortasuna zeure buruari eskaintzen hastea. Orduan ikusi baitzuen, zu zure argiaren jabe eginez gero, bera itzal iluna besterik ez zela, eta horregatik, beste inorena izan ez zedin, zeure argi hori itzali zizun. Eta bete egin zen bere ustea eta ez zuen aurkitu bizitzen jarraitzeko modurik. Kontuz gure semei euren kabuz galaxia osoa kudeatzen dutela ulertaraztearekin; izan gaitezen guztiak izar, geure argia mantentzeko ardura geure eginez.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Oharra

Abenduaren 6a eta 8a jai egunak direla-eta, datorren barikuan ez dugu BARREN kaleratuko. Hurrengo zenbakia abenduaren 16an jasoko duzue.

BARREN

Eskerrik asko

Pasa den larunbatean, Karakate Bizirik plataformaren deiarri erantzunez, elgoibartar ugari elkartu ginen herriko kaleetan jendekate bat osatzeko. Kate horren bidez irudikatu nahi izan genuen Karakaten jarri nahi dituzten aerosorgailuen tamaina eta eragingo lukeen txikizioa.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu era batean edo bestean ekimenean parte hartu zenuten

guztiei: katea osatzen parte hartu zenutenoi, atxikimendua erakutsiz bideoa bidali zenutenoi, hedapenean lagundu diguzuenoi, komunikabideei, argazkiak ateratzen edo bideoan grabatzen aritu zinetenoi, grabaketarako zuen etxeetako atea irekitzeko prest agertu zinetenoi, adar soinuz hasiera deia egin zuenari, txosnara lanera animatutakoei, zein txosnara jan-edanera hurbildutakoei, kamisetak erosi edo Karakateko proiektuaren aurka sinatu duzuen guztioi. Eskerrik asko esan nahi dizuegu nork bere eran babesa erakutsi diguzuen elgoibartarroi, beste behin ere argi utzi genuen Karakate bizirik nahi dugula, Karakaten ez dugula eolikorik nahi.

Elgoibarko Karakate Bizirik herri plataforma



LAGUNAK
colchonaria textil hogar

**Gabonetan egin etxeko guztiei tokia!
Ikusi gure mahai eta aulki tolesgarriak.**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

4 aulki
152m-tan



**UMEENTZAKO ARROPA DENDA
BERRIA!**

Abenduaren 5ean zabalduko dugu atea,
San Frantzisko 11 kalean.
0-14 urte bitartekoentzako arropa.

Etorri eta bisita gaitzazu!

**642 710 554
943 281 160**



Amaitu da. Egin dugu.

1.515 elgoibartarrek egin dugu ariketa:

1.092 ahobizi eta 423 belarriprest

914 emakumeak izan dira

608 gizonak

690 lagun, 31 eta 50 urte artekoak

50 urte baino gehiagokoak, 495

16 eta 30 urte artekoak, 330

103 entitatek ere egin dute ariketa, eta 366 arigune sortu dituzte.

(euskaraz lasai egiteko guneak)

Bakoitzak bere erara egin du: norberak hartu duen konpromisoaren neurria.

Izan dira lorpen txikiak. Izan dira lorpen handiagoak.

Eta izango ziren nahi eta ezinak. EUSKARALDIA ariketa bat delako.

Saiatzea da kontua. Ekitea. Egitea.

Hizkuntza-ohiturak aldatzea posible dela ikusi dugu, erraza ez bada ere.

Gure hizkuntza-praktiken gainean berba egin dugu. Zer pentsatua eman digu.

Txapa pozik eta harro egunero jarri dugu batzuek;

ezkutu samarrean eraman dute beste batzuek; eta, beharbada,

izango zen izena eman eta txapa jarri ez duenik ere.

Amaitu da. Egin dugu.

Eta orain, zer? Zer egin ariketa amaitu bada?

Zer egin txaparik ez badut jarri behar?

Bidea markatuta geratu da egiten jarraitu nahi duenarentzat.





Zuen keaxak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044



San Roke kaleko 24. zenbaki aurreko oinezkoen pasabidea zulatuta dago:

"San Roke kaleko 24. zenbaki aurrean oinezkoentzako pasabidea dago, eta bi zulo ditu. Jendea erori eta min hartzeko arriskua dago. Gune horretan, gainera, espaloia oso estua da, eta errepidera irten behar izaten dugu. Arrisku egoera hori gutxitzeko neurriak hartu beharko lirateke".



Komertzio eta portal aurrean aparkatzen dituzte autoak:

"Jendeak ez du ezer errespetatzen.

Ostegunetan, bereziki, denda atarietan aparkatzen dituzte autoak, eta sarrera-irteera oztopatzen diete bezeroei. Alde zaharreko portalen aurrean ere sarri egoten dira autoak, eta bizilagunak kalera irteteko edo etxera sartzeko arazoak izaten dituzte. Gutxieneko tarte bat behintzat lagatzea eskatzen dugu".



Txalo bat Udal Musika Bandari:

"Gauzak ilusioz eta mimoz egiten direnean nabaritu egiten da, eta horrela antolatu ohi dituzte kontzertuak Elgoibarko Udal Musika Bandako kideek. Igande honetako kontzertua benetan ikusgarria eta hunkigarria izan da, eta igartzen da izugarritzko lan eta esfortzua dagoela atzean. Gure herriko bandaz harro! Zorionak eta segi horrela!"



BARRENeke harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**Ne bulegora etorri eta berria emango dizugu. Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea. Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



19.269.123,90 euroko aurrekontua onartu du Elgoibarko Udalak datorren urterako



Elgoibarko Udaleko osoko bilkurak 19.269.123,90 euroko aurrekontua onartu 2023rako EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin. Podemos abstenitu egin zen eta EHBilduk kontra bozkatu zuen. 2022ko aurrekontuarekin alderatuta %8,85eko igoera izango du, dirutan milioi eta erdi euro gehiago. Inbertsioetara ia 2.691.000 euro bideratuko dituzte eta honakoak dira aurreikusten dituzten inbertsio nagusiak: King-Kong zubia berritzeko lanen lehen fasea (870.000 euro), Urazandiko biala (350.000 euro), Usetxe kaleko eskolen erainsketa (350.000 euro), Arriaga

industrialdea ontzeko lanen 3. fasea (350.000 euro), EKIOLA (Trantsizio energetikorako eguzki kooperatiba). Bi diru partida Olaizaga kiroldegian eguzki plakak ipintzeko: 40.000 euro eta 60.000, kaleen konponketa eta urbanizazioa (200.000 euro), landa gunean egiteko inbertsioak (180.000 euro).

Abenduaren 12an jarriko dituzte salgai Gabonetako bertso saiorako sarrerak

Abenduaren 28rako antolatu du Elgoibarko Izarrak Gabonetako bertso saioa Udalarekin elkarlanean, eta hilaren 12an hasiko dira sarrerak saltzen. Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturgunean duen egoitzan eros daitezke, hilaren 23ra arte. Epe hori amaitu ondoren,

sarrerarik geratzen bada, jaialdi egunean salduko dituzte Herriko Antzokian. Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Alaia Martin, Jone Uria eta Aitor Bizkarra izango dira aurtengo bertsolariak, eta Imanol Artola *Felix* arituko da gai-jartzaile lanetan.

Aste gastronomikoaren balorazio positiboa egin du Aizu! ostalarien elkarteak



Aste gastronomikoaren balorazio positiboa egin du Aizu Ostalarien Elkarteak, eta pozik agertu dira ekimenak izan duen harrerarekin. Perretxiko pintxoak jaten taberna batzuetan besteetan baino jende gehiago ibili da, baina oro har, egun horietan ohi baino jende gehiago ibili dela nabarmendu dute. Zapatuan, bestalde, kalean giro polita sortu zela uste dute zirkoarekin eta magia ikuskizunekin, eta gaueko kontzertua "sekulakoa" izan zela nabarmendu dute. Maalako parkea jendez lepo egon zen Kresala taldearen emanaldiaz gozatzeko.

Dendetan euskara gehiago erabiltzeko kanpaina hasi dute

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailak merkataritzan euskara sustatzeko kanpaina aurkeztu du, *Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz*. Zuk aukeratzen duzu lelopean, eta Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak ere bat egin dute kanpainarekin. Helburu nagusia herritarrek eguneroko erosketetan euskara

erabiltzera animatzea da. Parte hartzeko, establezimenduan euskaraz ulertzeko gai den lagun bat izatearekin nahikoa da, hau da, bezero euskaldunei gutxienez, euskaraz ulertuko dien lagun bat egotea. Iaz, Elgoibarko 28 establezimenduk egin zuten bat kanpainarekin. Kanpaina abenduaren 4an hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

Abenduaren 18ra arte bozkatu daiteke Elgoibarko erakusleihu lehiaketan

Abenduaren 2tik 18ra arte egingo dute aurtengo Eguberrietako Erakusleihoen lehiaketa Elgoibarren. 16 urteko herritar orok bozkatu dezake dendarik gustukoena, bai aurrez aurre

edo *elgoibar.eus* webgunearen bitartez. Parte hartzen duten guztien artean 50 euroko erosketabonua zozkatuko dute, aurtengo edizioan parte hartu duten denda horietan gastatzeko.

Parkinsonari buruzko hitzaldia, abenduaren 8an

Deparkel, Debabarreneko Parkinson Elkarteak, hitzaldia emango du abenduaren 8an, Elgoibarren. Nahia Mugerza Deparkel elkarteko

arduradunak eta Nerea Fernandez elkarteko psikologoak emango dute hitzaldia. 18:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Musika Gaua ospatu zuten zapatuan 'Aldenik Alden' egitasmoa erabiltzaileek



Atxutxiamaikako *Aldenik Alden* egitasmoaren barruan Musika Gaua egin zuten zapatuan. Aita Agirre kultur etxeko sarreran atondu zuten eszenatokia, eta txarangako kideekin batera, hainbat musikari gaztek kontzertua eman zuten.

Gazteak kontzerturako mozorroto ziren, eta amaieran, denek elkarrekin Huntza taldearen *Aldapan Gora* abestia kantatu zuten. Kontzertu ostean musika tresnak probatzeko aukera izan zuten gazteek.

Abenduaren 10ean gingo dituzte Mendaron Kontzezio Eguneko azoka eta jaia



Abenduaren 8an da Kontzezio Eguna, baina abenduaren 10ean ospatuko dute Mendaron. Egun osoko egitaraua antolatu du Mendaroko Udalak, urterokoa, eta herriko zenbait eragileren laguntza ere izango du horietako ekintza batzuk gauzatzeko. Bada ilusioa eta gogoia aurten. Herritarrak elkartzeko eguna izan ohi da Kontzezio Egunaren bueltakoa, familia eta lagun otorduetarako eguna, baina iaz, pandemia dela-eta, ez zen ospakizun ofizialik izan, eta igarri zen herri-giroan. Nolanahi ere, eta urtero bezala, azoka izango da egun honetako protagonista nagusia. 10:00etan zabalduko dute, frontoian, eta sasoiko produkturik onenak dastatzeko eta erosteko aukera izango da bertan. Aurten, ez da Mendaroko baserritarrik izango fruta eta barazki azokan. Azken urteotan Atxuri baserrikoak jaitsi izan dira plazara, baina faltako dira aurten. Baserriko jeneroaz gain, artisau postu batzuk ere izango dira azokan, bai eta ganaduen erakusketa ere. Lerro hauek idazteko unean, gutzit itxi gabe zeukan Debemenek ganaduzokan egotekoak zirenen zerrenda, baina okerrik ezean, bi mendaroar izango zirela aurreratu zuten.

Artisauetan, bai, izango dira mendaroarrak. 11:00etan, berriz, dultzaineroak kalejira egingo dute eta sagardo lehiaketari hasiera emango diote. 11. edizioa da aurtengoa. Bestalde, sagardo lehiaketaz gainera, urteroko zozketa ere egingo du Mendaroko Udalak. Txartel bana banatuko diete azokan erosketak egiten dituztenei, zozketarako.

Dantzak girotuko du eguerdi aldea. Mendaroko dantza eskolako haur eta helduek dantza erakustaldia egingo dute herriko plazan, eta aspaldiko urteetan ez bezala, zuzeneko musikarekin arituko dira aurten dantza askotan. Horretarako, Ameikutz musika eskolako txistularien eta trikitilarien laguntza izango dute, bai eta Haizea Urkia ikaslearena ere, gitarrarekin.

14:00etan, sagardo lehiaketako sariak banatuko dituzte, eta horrekin amaituko dituzte goiz parteoak. Arratsalderako, 18:00etarako, pilota jaialdia antolatu dute, eta ondoren, Luma Gorri arrazako oilasko errea banatzen jardungo dira plazan Arno Guraso elkarteoak. Batzen duten dirua elkartearantzako izango da.

KONTZEZIO EGYNEKO AZOKA

ABENDUAK 10 LARUNBATA

Mendaro, Elgoibar, Deba eta Mutrikuko adinekoentzako hiru udal etxebizitzak erabiltzeko prest daude

Mendaroko Udalaren herriko hiru etxebizitza sozialak prest daude, eta lau herriri emango diete zerbitzua: Elgoibar, Mendaro Deba eta Mutriku. Urtebeterako hitzarmena adostu dute, baina lau urtera arte luzatu daiteke. Udal ostatua egonaldi luzerako edo erabilera iraunkorrerako zerbitzua da, eta, salbuespen gisa, aldi baterakoa. Tutoretza, bitartekaritza-bitartekotza, gizarte-laguntza eta gainbegiratze lanak egiteko langileen laguntza izango dute, eta, hala badagokio, etxez etxeko arreta pertsonala ere jasotzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Mendaroko Eguneko Zentrok espazioan daude hiru etxebizitzak, eta Mendaroko Udalak hainbat egokitzapen gauzatu ditu erabaili ahal izateko. Hala nola, hezetasun arazoak konpondu, energia elektrikoaren kontagailuak egoki banatu, etxeko elementuz hornitu... 33.058,91 euroko aurrekontua bideratu dute horretara. Ostatu zerbitzuaren kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa Mendaroko Udalaren



eskumenekoa izango da, baina kudeaketa horren finantzaketa lau udalerrien artean banatuko dute. Inbertsioen ondorioz izango diren gastuak zein kudeaketari dagozkionak, biztanleria kopuruaren arabera banatuko dituzte: Elgoibarko Udalak %47,39, Debako Udalak %22,43, Mutrikuko Udalak %22,02 eta Mendaroko Udalak %8,16. Erabiltzaile plazaren kostuaren ordainketa, berriz, erabiltzailearen jatorrizko udalerririk ordainduko du, %100 ordaindu ezin duten pertsonen kasuan. Plazaren kostua urtero zehaztuko dute.

Lokal berria dauka Nuala elkarteak Santa Klarako komentuan

Nuala Elkartek, aniztasun funtzionala duten Debabarreneko pertsonen inklusiorako elkarteak, lokala estreinatu du Santa Klara komentua egon zen eraikinean. La Caixa Fundazioak egindako ekarpen ekonomikoari eta Gautena elkarteak komentuan utzi dien lokalari esker izan da posible, eta baita Udalak komentua utzi diolako laguntza-erakunde horri. Nualatik eskerrak eman dizkiete guztiei, lokal horri esker bilerak egiteko eta elkartzeko toki duin bat daukatelako orain.

Bestalde, bihar, Desgaitasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, stand bat jarriko dute Kalegoen plazan desgaitasunari buruzko informazioa emateko. Puxikak, boligrafoak, gozokiak eta elkartearen kamisetak jarriko dituzte salgai, elkarte finantzatzen laguntzeko. Era berean, herritarrak animatu dituzte abenduaren 17an kiroldegian egingo den erronka solidarioan parte hartzera. "Nahikoa izango da laguntza



ekonomikoa ematea eta metro batzuk igeri egitea, inklusioaren alde eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzat bidezkoagoa izango den gizartearen alde", esan dute. Nuala elkarteak eskerrak eman ditu baita ere gure herrian inklusioaren alde egin diren ekimen solidarioengatik, eta, halaber, eskerrak eman nahi dizkiete Danobati, emandako laguntzagatik, eta Ikastolari, antolatu dituen hainbat ikastarorengatik. Harremanetarako: nualaelkartea@gmail.com / 688 765 857.

Lau saltokitan egin dute elikagai bilketa solidarioa

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak elikagai bilketa solidarioa antolatu zuen joan zen astebururako, eta Elgoibarren ere lau saltokitan egin zuten bilketa: Santa Ana kaleko eta Maalako Eroskin, BM supermerkatuan eta Mercadonan. Bilketa hori aurrera eraman ahal izateko boluntarioen laguntza eskatu zuen Udalak, eta 46 lagun aritu ziren lanean. Udalak eta Gurutze Gorriak eskerrak eman dizkiete guztiei egiten duten lan desinteresatuagatik eta Elikagaien Bilketa egin ahal izatea ahalbidetzen dutelako. "Ezinbestekoa da elkarri laguntzea; lankidetzeta. Guztion artean gizarte hobea eta solidarioagoa egiten dugu".



Gipuzkoako Elikagaien Bankutik zehaztu dutenez, aurtengo bilketa ondo joan da: "Goiz da esateko, baina daukagun sentsazioa da 2019ko kopuru bera jaso dela. Janaria eta bonu solidarioak batu dira".



Mari Jose Telleria izango da Kultura Diputatu berria

Mari Jose Telleria PSE-EEko zinegotzia da Mendaron, eta aurrerantzean Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko Diputatu izango da. Orain arte diputatua izan den Harkaitz Millanek dimisioa eman du aste honetan, agintearen aurkako atentatua egitea egotzi diotenean, eta Markel Olano ahaldun nagusiak dimisioa onartu eta Telleria izendatu du haren ordeko.

Mari Ecenarro Gorostidi hil da, Elgoibarko EAJ-ko lehenengo zinegotzi emakumezkoa izandakoa

Mari Ecenarro Gorostidi hil zen martitzenean 83 urte zituela. Elgoibarko kulturgintza eta euskalgintzan lan handia egindakoa zen, eta bera izan zen Elgoibarko EAJ-ko lehen zinegotzi emakumezkoa. 1979ko Udal Hauteskundeetan hartu zuen zinegotzi kargua EAJ alderdiarekin. Urte hartan bederatzizinegotzi lortu zituen EAJk Udal Hauteskundeak irabazita. 3.185 boto eskuratu zituzten jeltzaleek, botoen %47,39. Herri Batasuna izan zen orduan bigarren indarra 1.225 boto eta hiru zinegotzirekin; eta hirugarren lekuan geratu zen PSE-EE, 797 boto eta bi zinegotzirekin.



“Aurkikuntza honek puntu bat ezartzen du mapa txuri batean”

JOAKIN GORROTXATEGI

Hizkuntzalaria

Euskararentzategun historikoa izanzen azaroaren 14a, Nafarroako Gobernuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak hizkuntza baskonikozko idazkunik zaharrena aurkitu zutela jakinarazi baitzuten: "Sorioneku". Irulegiko Eskua deitu duten piezan aurkitu duten idazkuna ikertzen ibili da Joakin Gorrotxategi hizkuntzalari eibartarra.

✍️👤 EKHI BELAR - DKT



Demaseko oihartzuna izan du Irulegiko Eskuaren aurkikuntzak, baina zergatik da hain garrantzitsua?

Oso pieza berezia da. Gainera, Aranzadi elkartekoek lan ikaragarri ona egin dute gertakizunaren zabalkundean, aurkezpena oso ondo prestatu zuten, eta horri gehitzen badiozu espero ez genuen aurkikuntza izan dela, ulertzekoa da izan duen oihartzuna. Gainera, euskararekin lotura duela da gure hipotesia eta agertu den tokia bera ere berezia da... Nire partetik, antzinako grekoek esaten zuten bezala: “Ezer ere ez, larregi”. Gehiegikeria pixka bat nabaritzen dut honetan guztian.

Noiztik zaude berria emateko zain?

Apiriletik, baina udarako aurkikuntzaren inguruan zerbait argitaratu behar izan genuen. Dena ondo esplikatu arte, gaia tiraderan gorde dezakegu hainbat urtez, baina kasu honetan badirudi hori ezin zitekeela egin. Beraz, ahal izan den neurrian piezari oinarrizko frogak eta irakurketa bat egin dizkiogu, eta argitara eman dugu. Uste dut irakurketa ondo dagoela %90ean, oraindik gauza batzuk zehatzago ikusi behar dira-eta. Zalantzak daude, gauza batzuk

ez direlako ondo ikusten eta zenbait tokitan pieza hobeto garbitu behar delako. Gainera, toki batzuetan azpiko eta goiko idazkunak ez datoz bat. Bi edo hiru tokitan gertatzen da hori eta ikusi beharko da zergatik den horrela eta zeini ematen zaion lehenetsuna. Beraz, funtsezko gauzak daude egiteko.

Dena dela, argitara ematea erabaki duzue. Zergatik?

Badakigulako pieza benetakoa dela. Atzean Iruña-Veleiako mamua dago, neure buruan beste inoren buruan baino gehiago, baina garbi dago pieza hau benetakoa dela.

Nola dakizue hori?

Batetik, indusketa lana oso ondo jarraitu delako. Dena dago grabatuta eta argazkiekin dokumentatuta, eskuaren puntatxo bat lurrean agertzen den momentutik esku osoa atera arte. Eskua ateratzean lurrez beteta zegoen, baina bertan garbitu beharrean, oso zuhur jokatu zuten eta Nafarroako Gobernuaren zerbitzura eraman zuten han garbitzeko. Garbiketa ere dokumentatuta dago. Alde bat garbitzen hasi

ziren eta letrak agertu ziren, marra batzuk, oraindik beste guztia garbitu gabe zegoenean. Bestetik, bertan idatzita dagoena irakurtzen duzunean konturatzen zara, inori ezin zaiola bururatu horrelako zerbait idaztea eta asmatzea. Ezinezkoa da.

Beraz, Iruña-Veleiako kasua bestelakoa zen?

Bai, guztiz. Han agertzen zen guztia ulertu egiten genuen. Bertan azaltzen ziren Ama Birjina, Jesus, Jose, kalbarioa, Egiptoko faraoi eta erregina famatuak (Nefertiti, Ramses)... Irulegiko Eskuan, ostera, zer da ezaguna? Ia ezer ez.

‘Sorioneku’ berba bakarrik egiten zaigu ezaguna, zorioneko hitzarekin lotzen dugulako. Berba biek badute zerikusirik?

Eskuan agertzen den horri ez nioke euskara deituko. Piezaren % 20 bakarrik ulertzen dugu edo, hobeto esanda, uste dugu ulertzen dugula. Beraz, gauzak tentuz hartu behar dira eta lan asko egin behar da oraindik. Guk hipotesi bat dugu, baina ikusiko dugu aurrera doan ala ez. Ulertzen dut honekin guztiarekin jendearengan sortu den poza, baina gertatzen dena da jendeak lehenengo berba hori ulertzen duela eta beste guztia ez, eta hala ere bost axola dio ez ulertzea. Horrekin nahikoa dela uste dute, baina niri horrek ez dii balio. Ahal bada, idazkun osoa ulertu behar da eta esango nuke oso zaila izango dela. Urteak pasako dira eta agian ezinezkoa izango da beste dokumentu gehiagorik ez dugun bitartean.

Beste aurrikuntza bat beharrezkoa izango da gainerakoa ulertzeko?

Ez dakit. Hori ulertzeko bi gauza egin behar dira. Hartu dezagun ‘sorioneku’ berba. Zorioneko hitzarekin lotu da, baina ia-ia esango nuke ezinezkoa dela. ‘Eku’ horrek ezin izan du ‘eko’ eman. Nik azpimarratuko nukeena da, nahiz eta bere arazoak eduki, ‘sorion’ dagoela hor. Horrek badu zentzu moduko bat eskuarekin. Idazkuna oso aparta da, ez dago horrelako idazkunik, esku baten gainean. Bakarra da. Iberieraz, zeltiberieraz eta beste epigrafi batzuetan idatzitako testuak asko dira (3.000tik gora), baina horrelakorik ez da inon agertu. Orduan, parekorik ez duenez, zaila egiten zaigu antzeko

“Badakigu hau benetakoa dela eta agian euskararekin zerikusia izan dezakeela”

gauzekin konparazioak egitea. Dakigun euskararekin konparazioak egitea bakarrik geratzen zaigu. Horregatik, ‘sorion’ euskararekin konparatu dezakegu eta eskuak duen sinbolismoarekin zentzua izan dezake. Izan ere, nahiko zabaldua da eskua babesba adierazteko erabiltzen zela edo zentzu apotropaikoa zuela; hau da, gaitzak uxatzeko erabiltzen zela.

Eskua K.a. I. mendekoa da, eta gerra giroa bizi zen eskua aurkitu zen tokiaren inguruan, ezta?

Bai. Hango biztanleak oso trantze zailan zeuden eta horrekin lotu daiteke eskua. Ez dut uste eskuak gaur egungo ekiloreak bezala etxeen atarian jartzen zituztenik, edo jendeari ongi-etorria emateko erabiltzen zirenik. Trantze hura oso gogorra izan zen, hilala biziko kontua, eta zerbaitekin lotzekotan, eskua momentu horrekin lotuko nuke, baina hipotesia besterik ez da, badituelako zailtasunak.

Zein zailtasun?

Adibidez, ‘sorion’ berban aspirazio bat espero genuen, ‘sorihon’ moduko bat. Egia da orduko sistema grafikoak ez duela ‘h’-a edo aspirazioa markatzeko modurik eta, tira, agian zailtasun hori gainditu dezakegu. Baina hasieratik harritu ninduen zera da: ‘sorioneku’ hain erraz ulertzen badugu, hurrengo hiru lerroetan zergatik ikusten dugu hain ilun kontua. Neurri batean, kontraesana dago hor.



Irulegiko Eskua eta bertan idatzita dagoen testua. ARGIA

Batzuek diote 1.600 urte pasatu direla Irulegiko Eskutik euskarazko lehenengo testuetara (XVI. mendekoak) eta normala dela ez ulertzea. Neurri batean egia da hori, baina argumentu hori erosten badut, zergatik ulertzen dugu ‘sorioneku’?

Honen guztiaren harira irten den beste galdera bat da ea honek euskararen jatorria argitzen duen. Argitzen al du?

Momentuz, ez. Idazkun honi azalpen osoa eta sakona ematen ez diogun bitartean, lehen bezala gaude. Honek ez du frogatzen lehen euskara egiten zenik, bagenekien baskoien lurraldean euskara egiten zela. Euskararekin lotu ditzakegun dozena bat inguru izen propio dokumentatuta daude. Alde horretatik, honek ez du gauza berririk ekarri. Galdera eta arazo asko jarri dizkigu mahai gainean.

Orduan, zein gauza berri ekarri ditu?

Lehen ez genuen idazkunik. Tira, hori ere ez da egia. Idazkun batzuk bagenituen. Adibidez, txanponetan izenak agertzen dira. Kontua da, idazkun honetan lau lerro agertzen direla.

Garrantzitsua da idazkuna osorik egotea?

Bai. Berriz diot, pieza berez da oso garrantzitsua. Aparta da. Batetik, esku itxurako pieza batean dago idatzita eta ez dago horrelako besterik. Bestetik, idazkerari dagokionez, badago ikur edo zeinu bat, ‘T’ itxurakoa, gure ezagueraren arabera baskoien lurraldean erabiltzen zena. Horrekaditzera ematen du testua ez dela kanpotik ekarri, bertan idatzi zela, eta hori ez genuen hain seguru orain arte. Txanponak bai, bertakoak dira, baina gauza ofizialak dira, agintariek enkargatu zitzaizketenak. Bestetik, badago orain dela 30 urte inguru agertu zen beste idazkun garrantzitsu bat, Muruzubal Andiongo mosaikoa, Mendigorria inguruan. Hori ere bertakoa da, baina paradoxa bat gertatzen da mosaikoarekin. Baditu paraleloak, Teruelen eta Zaragozan oso antzeko mosaikoak agertu baitira, latinez idatzita eta teknika berberarekin. Horrek Ebro bailararen lurralde horretara eramaten gaitu, baina Irulegiko Eskua Iruñea ondoan agertu da, baskoien lurraldearen bihotzean. Lehen hor ez zegoen horrelako aurkikuntzarik eta honek puntu bat ezartzen du mapa txuri batean. Gainera, aztarnategi horretan gauza gehiago agertzeko esperantza ematen digu.

Nolako gauzak aurkitu dira bertan?

Zeramika pusketetan zeinu batzuk agertzen dira,

“Irulegiko Eskuan agertzen den horri ez nioke euskara deituko”

baina apurtuta daude eta ez daude osorik. Dena dela, idazten zekitela aditzera ematen du. Orain arte ez genuen ezer eta honek esperantza ematen digu.

Idazteko moduari dagokionez, zer esango zenuke?

Testu honek erakusten digu bi fase zeudela idazkerak egiteko orduan. Lehenengo marraztu egiten zuten eta, gero, zizelarekin gainetik puntuatu. Orain arte puntu egindako letrak ezagutzen genituen, baina azpian ez zegoen ezer. Beraz, nola demontre egiten zuten? Zuzenean zizelkatzen zuten? Marraztu egiten zuten? Aurkikuntza honekin pentsatzen dugu lehendabizi marraztu egiten zutela eta gero zizelkatu. Oso zorionekoak izan gara aurkikuntza honekin, piezako zenbait tokitan desadostasunak daudelako azpiko eta gaineko letren artean.

Nolako desadostasunak?

Azpian letra bat markatzen du eta goian beste bat. Orduan, zeini ematen diogu lehentasuna, goikoari edo azpikoari? Beste testuen aurrean inoiz bururatu ez zaigun arazo bat dago hor. Galdera asko sortzen zaizkigu eta gauza batzuei erantzuna eman ahal izango diegu.

Baina, beste batzuei ez?

Ez, baina oso garrantzitsua da testu historiko gisa. Gainera, testuinguruari dagokionez, toki eta sasoi esanguratsuan kokatzen da. Esate baterako, orain dela 30 urte inguru brontzezko pieza txiki bat agertu zen Arangurenen. Zatitua zegoen eta hitz bat ere ez zuen ematen osorik. Ez genekien zeltiberiarrez edo zein hizkuntzatan idatzita egon zitekeen, baina pentsatu izan genuen agian kanpotik ekarri zutela (legionario edo soldaduren batek, auskalo). Testuingururik gabe agertu zen eta horrela zaila da ezer aztertzea. Irulegiko Eskuak, ostera, testuinguru garbia du eta argitu dezake Arangurenen aurkitutako brontze hori hemengoa izan zitekeela.

Iberierazko ipar-ekialdeko idazkeraren antzeko zeinu kodean dago idatzita Irulegiko Eskua.

Zenbateraino zegoen sartuta iberiera baskoien lurraldean?

Ez dakigu. Iberieraz idatzitako testuak Katalunia osoan, Ebro bailaran Zaragozara bitartean eta beste zenbait lekutan dokumentatu dira, baina lurralde honetan sartu zen? Ez? Erabiltzen bazen, nola erabiltzen zen? Beste batzuek galdetu dute ea Irulegiko Eskuan agertzen dena ez ote den iberiera.

Zer uste duzu?

Hirugarren lerroan iberieraz dokumentatuta dagoen berba bat aurkitzen dut, baina beste 'r' batekin dago dokumentatuta, ez dago grafia berean. Beraz, iberierarekin lotu dezakegu? Azaleko parekotasuna da beste barik? Iberiera irakurtzen badakigu, baina ez dugu ulertzen. Ulertuko bagenu, eskuan agertzen dena iberieraz dagoen edo ez jakingo genuke. Irulegiko Eskuaren parekorik ez edukitzea zorigaitzekoa da, ez dugulako paralelorik. Eskuaren orde z hilerri bat agertu izan balitz, hildakoaren izenarekin eta abar, iberieraz horrelako pare bat dozena ezagutzen ditugunez, azkar jakingo genuke iberiera ala euskara den.

Esan duzun bezala, hau puntu bat da orain arte zuri zegoen mapa horretan. Baina, gutxienez, mapahorrek dagoeneko badu puntu bat hurrengo puntua aurkitzen denerako.

Horregatik da garrantzitsua. Testu honi buelta asko emango zaizkio, baina denbora asko beharko da zerbait argitzeko. 'Sorioneku' berbarekin egin dugun bezala, lotura gehiago egin behar dira euskararekin. Esan bezala, 'Sorioneku'-k ere arazoak ematen ditu. Aspirazioaren arazoa gaingitu daiteke, baina 'eku'-tik 'eko'-ra pasatzea ezinezkoa da. Euskararekin lotzekotan, beste gauza bat izan behar zuen. Gainera, 'ku irakurtzen badugu, hori transkripzioa da, horren azpian 'gu' ere irakurri zitekeelako. 'Sorioneku' jartzen dugu belarrira ematen digulako, baina 'sorionegu' jarri zitekeen. Eta gauzak askoz ere gehiago konplikatzeke, aipatutako desadostasunetako bat (barruko eta goiko parteetan) justu hor dago.

Asko dira zalantzak, baina zer sentituzenuen aurkikuntzaren

berri eman zizutenean?

Bihotzean zirrara sentitu nuen, ia buelta eman zidan. Iruñea ondoan, baskoien lurraldean horrelako zerbait agertzea, esku baten gainean... Gauza guztiek toki berera eramaten zuten. Ze poza! Baina gero, beste hiru lerroak irakurtzean, ez nuen ezer ulertzen, iberieraren aurrean sentitzen dudana sentazio berbera nuen, eta oraindik ez gara hortik atera. Orduan, alde batera edo bestera joango gara, baina momentuz hor gabilta.

Hizkuntzalari moduan zer esan nahi du zuretzat aurkikuntza honek?

Erronka ikaragarria eta buruhauste handia (barreak). Jendearengan sortu duen pozak eta ilusioak, Iruña-Veleiak eragin zigun atsekabea atzean lagatzen dute. Badakigu hau benetakoa dela eta agian euskararekin zerikusia izan dezakeela. Ikertzeko dago oraindik eta hipotesia besterik ez da. Antropologoek ere hitza hartu beharko lukete, eskuak berak zer adierazi dezakeen argitzeko, testuan sartu gabe edo, era berean, testuari funtzio bat emateko.

Karrera amaitzen zaudenean erori zaizu esku artean horrelako erronka bat. Erretiratu arren, gertutik jarraituko duzu ikerkuntza?

Erretiratu egingo naiz eta ez dut lanak eskatzen dituen betebeharrak edukiko. Ofizio honek gustuko gauzak egiteko aukera eman dit, baina baita beste betebehar batzuk ere. Horiek aparte utziko ditut eta denbora gehiago izango dut nire gauzetarako eta pixka bat gozatzeko. Hala ere, bai, ikerkuntza jarraituko dut, baina ez naiz lehenengo lerroan egongo. Gainera, oso ondo prestatuta dauden filologo eta hizkuntzalari gazteak ditugu, eta eurek ere hitza hartu behar dute. Esku onetan gaude.





INDARKERIA MATXISTARI, EZ

✍ Ainhoa Andonegi
📍 Asier Orbea / Ainara Argoitia

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen azaroaren 25a, eta horren harira hainbat ekitaldi egin dira Elgoibarren eta Mendaron. Joan zen barikuan eman zieten amaiera ekitaldiei. Elgoibarren, 38 zenbakia irudikatu zuten zapata gorriekin Kalegoen plazan, indarkeria matxistak aurten hil dituen emakumeen kopurua gogoratzeko. Iluntzean, berriz, elkarretaratzea egin zuten Kalegoen plazan, eta gero manifestazioa egin zuten, Uluka batukadaren erritmora. Aita Agirre kulturguneko arkupeetan bukatu zuten, *Txoriak Txori* abestuz. Mendaron, bestalde, zapata gorriak jarri zituzten frontoian, eta biktimak oroitzeko mezuak zabaldu zituzten. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus







1.800€

**BANATUKO DITUGU
10 EROSKETA TXEKETAN**
(Zozketa 2023ko urtarrilaren 9an)



**GABONETAKO 7 SASKI EKOLOGIKO
BANATUKO DITUGU**
(Zozketa abenduaren 22an)



**URTARRILAREN 3AN ELGOIBARKO
KALEETAN ZEHAR TXU-TXU
TRENA IZANGO DA!**



Etxebizitza erosi ala alokatu nahian zabiltza?

Gehigarri honetan, zure etxebizitza erosteko, saltzeko edo alokatzeko prozesuan lagun zaitzaketen profesionalak topatuko dituzu, gertukoak. Elgoibar eta inguruan ditugun aukerak aurkeztuko dizkizugu, laguntzarik onena jaso dezazun. Bigarren eskuko etxebizitzak edota promozio berriak aurkezten dizkigute gaur orri hauetara ekarri ditugunek. Elgoibar edo inguruko etxebizitzaren informazioa emango dizute eta askotan hain zaila egiten den erosketara edo salmentaren prozesuan lagunduko dizute, beti ere zure beharretara egokituko diren aukerak aurkeztuz.



garoa
Higiezin agentzia



- ◆ Partikular, autonomo eta enpresentzako aseguruak.
- ◆ Finken administrazioa.
- ◆ Enpresen aholkularitza.
- ◆ Higiezin zerbitzua.
- ◆ Ibilgailuen izapideak.

Bernardo Ezenarro Kalea, 2
20870 Elgoibar - Gipuzkoa
info@inmogaroa.com - www.inmogaroa.com

943 743 492

INMO
EUROPEAS
INMOBILIARIA

Mikel Leon
Komertziala



747 459 343
Elgoibar
www.inmoeuropeas.com
mikel@inmoeuropeas.com



“Gure bezeroei aholkularitza integral bat emateagatik nabarmentzen gara sektorean”

ANDARA etxebizitza-agentzien munduan zerbitzu sorta zabala eskaintzen duen familia enpresa gaztea da. Anahi de la Cruz Agirregomezkortak sortu zuen enpresa 2020. urte erdialdean eta Bernardo Ezenarro kalean dute bulegoa, Elgoibar erdigunean.

Anahi, nola sortu zen ANDARA? Nortzuk osatzen duzue enpresa?

Enpresa-zientzietan lizentziaduna naiz, eta 15 urte baino gehiagoz finantza-sektoreko (banke-txeetan) erantzukizuneko lanpostuetan egin dut lan. Nire kabuz ekiteko ideia higiezinaren sektorearen inguruan nere negozioa sortzeko nuen kezka bide emateko sortu zen. Higiezinaren sektorearekiko gertutasuna nire amarengandik datorkit, urteetan izan baitzuen, Elgoibarren bertan, higiezin agentzia bat. Berak animatu ninduen duela urte batzuk jabetzaren kudeaketan eta aholkularitzan masterra (API-n Masterra) egitera, betidanik gustatu izan baitzait jardura hau. Nire ama zutabe garrantzitsua da negozioan, asko lagundu dit hasieratik lanean, egunero. Urtebeteko jardueraren ondoren, lan-bolumena dela-eta, nire ahizpa Nerea sartu genuen taldean (administrazio-ikasketak eta zerga-ezagutzak ditu). Gaur egun, hirurok gaude bulegoan, behar duen orori zerbitzu profesional eta hurbila ematen.

Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen higiezinaren zerbitzuak?

Etxebizitza berrien eta erabilien salerosketan aholkularitza integrala emateaz gain, beste jardura batzuetan ere aritzen gara, hala nola higiezinaren sustapenean, eraikin eta lurzoruen jabeen aholkuak ematen, kooperatiben kudeaketan, errentagarritasuneko aktiboetan... Etxebizitzaren salerosketan bitartekari hutsak ez garela azpimarratu nahi nuke. Gure bezeroei aholkularitza integral bat emateagatik nabarmentzen gara sektorean, erosleei zein saltzaileei, aholkularitza zerga eta finantza maila eskainiz. Sektore sustatzailean geure kontura jarduten dugu (sustapenak guk geuk zuzenean garatuz), eta sustatzaileei aholku ematen diegu, azterketa ekonomiko-finantzarioak, merkatu-azterketak, estrategia komertziala eta abar eginez.

Eta nola ikusten duzue Ukrainako gerrak ekarri duen egoera? Inflazioa, interes-tasen gorakada...

Ziurgabetasun handiko egoera batean gaude;

interes-tasen igoerak, inflazioak, gasaren eta elektrizitatearen prezioen gorakadak... ez dute laguntzen inbertsioetan pentsatzeko. Inoiz ez dugu ikusi horrelako tasa bertikalen igoerarik, baina esan behar da zentzuzkoak direla (%2 eta %3 artekoak), eta duela hamarkada bat baino gehiago ohituta geundela horietara. Inflazioari dagokionez, moteltzea espero dut, pixkanaka prezioak egonkortzen joatea, herritarren erosteko ahalmena gehiegi kaltetu ez dadin. Hala ere, esan dugun guztia kontuan izanda, etxebizitzan inbertitzea beti izan da babesleku aktibo bat krisi garaian. Kalitatezko etxebizitzaren beharra dagoen uste sendoa dugu eta oso nabarmen Elgoibarren; beraz, nahiz eta ziurgabetasuna aipatu dugun, baikorrak garela esan dezakegu eta negozioan aurrera egiteko; argi daukagu gure onena ematen ahaleginduko garela, gure bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko.

Zein dira zuen planak/estrategiak etorkizun hurbilerako?

Gure bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena es-

kaintzen jarraituko dugu, etxebizitzan eta lokalen salerosketen eta alokairuen aholkularitzan. Gure negozioaren segmentu horretan, bezeroen beharrak asetzeko obra berriko eta bigarren eskuko etxebizitzan zorro onena edukitzera bideratuko ditugu ahaleginak. Higiezinaren sustapenari dagokionez, Trenbide kaleko 10. zenbakiko sustapena berehala abiarazi ahal izateko hirigintza-prozedura amaitzen ari gara. Sustapen horrek babes ofizialeko 9 etxebizitza eta kalitate handiko 17 etxebizitza libre izango ditu. Sustapenaren segmentu honetan, Elgoibarko hiriguneko eraikin

zaharren jabetzak dituzten negozioazio-prozesu ezberdinetan gaude, obra berrien sustapena garatzeko asmoarekin. Horrelako eragiketa estrategikoak gure negozioarentzat aintzat hartzen ditugu, helburu bikoitza betetzen baitugu: batetik, erdigunean kalitatezko etxebizitza berriak eskaintzea, eta, bestetik, gure herriko alde zaharra biziberritzen laguntzea, tokiko merkataritzari ere mesede eginez.

“Etxebizitzan inbertitzea beti izan da babesleku aktibo bat krisi garaian”



Â N D A R A

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK









Errosario kalea, 4-6

San Bartolome kalea, 12

Toletxe kalea

Iñiguez Karnizano kalea

Anahi de la Cruz
M: 688 724 122

Bernardo Ezenarro kalea, 15 behea
20870 - Elgoibar
info@andaragestion.com
688 724 122 / 943 748 427

%70
SALDUTA

18
ETXEBITZA

SUSTITZAILA

Inmobiliaria **ORIO**
943 89 44 33

INFORMAZIOA ETA BALORAZIA

GABILONDO
INMOBILIARIA

943 744 467

WWW.SF54.EUS



GABILONDO
INMOBILIARIA Y URBANISMO

25 URTETIK GORA KALITATEZKO HIGIEZIN ZERBITZUAK ESKAINTZEN.

Zuzenbidean lizentziatua

Higiezin jabetzako agentea

Aditu judiziala



HIGIEZINEN SALEROSKETAK



ALOKAIRUAK



AHOLKULARITZA JURIDIKOA



BALORAZIOAK



LURZORUAREN KUDEAKETA

EDURNE GABILONDO LOYOLA

WWW.INMOBILIARIAGABILONDO.ES

ROSA M^a PINTADO
Etaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net



Aholkularitza
kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioaleen
Lurralde Kontseilua

DERRIGORREZKO
KOLEGIATZEA

BAI!
MILA ESKER



Hiru aukera, beren argi-ilunekin

Etxebizitzak eta hipoteka-maileguak asko garestitu dira, eta lehen ere erraza ez zena, etxebizitza izatea, are gehiago zaildu da orain. Herritarrek zailtasunak dituzte etxebizitzak erosteko, eta hein batean horregatik -nahiz bestelako arrazoiak ere egon badauden-, gero eta pertsona gehiagok egiten dute alokairuaren alde. Aldekoak eta kontrakoak daude. Batzuentzat, alokairua ez da aukerarik onena, dirua alferrik botatzea dela uste dutelako; besteentzat, berriz, aukera bat da, bestea bezain ona edo hobea.

Tarte honetan erostearen edo alokatzearen abantailak eta desabantailak zeintzuk izan daitezkeen aztertuko dugu. Erostea ala alokatzea? Zein da zuretzako aukerarik onena?

Gure gizartean oso errotuta dago etxebizitza bat erostea, etxea norbere jabetzan izateari garrantzia handia ematen zaiolako oraindik. Europako herrialde askotan, aldiz, zabalduagoa dago alokairuan bizitzeak aukera gehiago ematen dituen ustea. Askok uste dute alokatzeak malgutasun handiagoa ematen duela eta errazten digula bizitza, merkeagoa izanda, sortzen den menpekotasuna ere txikiagoa delako, besteak beste.

Etxebizitza bat erostea epe luzerako inbertsioa izaten da normalean, eta etxebizitza bat baino

gehiago erostea lortuz gero, aukera izango dugu etorkizunean irabaziak emango dizkigun ondare bat izateko. Bi aukerak dituzte beren alde onak eta txarrak, eta aukeratzeko kontuan hartu beharreko irizpideak asko eta askotarikoak dira: norberaren ideologia, pentsakera, bizimodua, norbere beharrak eta gaitasun ekonomikoak...

Etxea alokatzearen abantailak:

- Eskuragarriagoa da: Hasieran ordaindu beharreko diru-kopurua etxebizitza bat erosterakoan egin behar den inbertsioa baino askoz txikiagoa da, eta etxe bat erosterakoan sortzen diren gastuak ere ez dira ordaindu behar.

- Askatasun handiagoa ematen du: Ez zaitu beste aukerak beste lotzen, eta etxebizitzarekin berarekin gustura ez bazaude, edo bizi zaren auzora ohitzen ez bazara nahiz zure bizi-baldintzak aldatzen badira, berehala utzi eta bilatu dezakezu beste aukera bat.

- Laguntzak: Dirulaguntzak daude alokairua ordaintzeko. Zure egoera ekonomikoaren edo adinaren arabera, alokairuaren parte bat ordaintzeko dirua eskuratu ahal izango duzu dirulaguntzei esker.

- Krisi garaiko ziurgabetasun-egoera honetan bizitza zaildu bazaizu, alokairu merkeago batera

aldatzeko aukera izango duzu; aldiz, etxebizitza erosteko urte askorako lotuko beharko zara mailegua eman dizun finantza erakundearekin.

- Etxe bat mantentzeak, etxetresna elektrikoak aldian behin aldatzea eskatzen du, bai eta konponketa eta eraberritzeak egitea ere noizean behin. Gutxi gorabehera hamar urtean behin egin beharreko lanak izaten dira horiek. Alokairuan bizi bazara, ez duzu gastu hori zure gain hartu beharrik.
- Alokatzean, OHZren, komunitateko eta derramen gastuak ere aurrezten ditugu.

Etxe bat erostean abantailak:

- Alokairuan, hilabeteko errenta askotan hipotekaren hileko kuota baino garestiagoa izan ohi da, baina erosteak badu bere abantaila: etxearen balioa ordaindutakoan etxe hori zeurea izango dela.
- Nahi duzuna egin dezakezu zeure etxean, beti ere araudia errespetatuz gero: eraberritzeak, etxea zeure gustura jartzeko obrak...
- Merkatuaren baldintzak aztertuta, zeure jabetzako etxe hori edonoiz saldu ahal izango

duzu eta dirua irabazi edo gutxienez jarritakoa jaso.

Alokairua, erosteko aukerarekin

Erostea edo alokatzea argi ez dutenentzat aukera paregabea eta errentagarria izan daiteke hau; alokatzea, etorkizunean erosteko aukerarekin. Aukera honek pentsatzeko aukera ematen digu, beti ez baita erraza izaten erabaki bat hartzea, bizitzak buelta asko ematen dituelako eta bizi garen garai hauek sekula baino lausoagoak direlako. Kasu batzuetan, banketxeek edo etxe-jabeek etxebizitza alokatzeko eta erosketaren erreserba egiteko aukera ematen dute, aurrerago etxebizitza erosteko asmoa guztiz ez baztertzeko. Horretarako egiten den kontratuan, erosteko baldintzak zeintzuk izango diren zehaztu behar da ondo, eta adibidez, oso da komenigarria zehaztea errenta gisa ordaintzen dugun hileko kuota etorkizunean etxeak balio duen horretatik deskontatuko zaigun ala ez. Bestera, etxek aldatzea erabakiz gero, kontratua lasai-asko eten ahal izango duzu eta etxea erosteko aukerari uko egin.

Zure diruak balioa dauka

★
5. SOLAIRUA
1 LOGELA
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
135.000 eurotik aurrera

★
5. SOLAIRUA
2 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
160.000 eurotik aurrera

★
3 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
180.000 eurotik aurrera



etxegain
IK11

Bizigunea parkean

ETXEBIZITZA GUZTIEK BISTA GARBIAK
DITUZTE ETA TERRAZAK ARRATSALDEKO
EGUZKIARI BEGIRA DAUDE.

SUKALDEAK, HORNITUA DAUDE
ERABAT HORNITUTAKO ARMAIRUAK

IK11k GEHIAGO EMATEN
DIZU, LOGELA GEHIAGO,
ALTUERA HANDIAGO,
BISTA GEHIAGO,
TERRAZA GEHIAGO...
GUTXIAGOREKIN






650 442 159

E.: comercial@grupoeibar.com

WWW.ETXEGAIN.COM

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:
San Francisco, 32 • 20870 ELGOIBAR

Irudi birtualak ez lotutakoak

2023ko egutegia Aita Agirre kulturgunean eta herritarren arreta bulegoan eskuratu daiteke



Elgoibarko Udalak aurkeztu du 2023ko egutegia, eta Aita Agirre kulturgunean edota herritarren arretarako bulegoan eskuratu daiteke. 6.500 egutegi txiki eta 3.500 handi argitaratu dituzte. 36 lagunek hartu dute parte lehiaketan, eta 180 argazki aurkeztu dituzte guztira. Hauek izan dira sarituak: Gurutze Ariznabarreta (3 argazki saritu), Jose Ramon Cabrera, Manu Sanchez, Saioa Rodriguez, Haizea Sanchez, Vicente Guinea, Jabi Leon, Larraitz Zialtzeta, Alberto Murcia eta Denis Saiz. Egutegi txikirako argazkiaren sariduna, berriz, Maria Exposito izan da. Saridun bakoitzak 80 euroko erosketa-bonoa jaso du.

Argazkiekin batera, LH5eko ikasleen artean marrazki lehiaketa egin dute, eta hilabete bakoitzeko marrazki bat saritu dute. Hauek dira irabazleak: Maia Alustiza, Nora Gurrutxaga, Nahia Malvar, Elaia Ormaetxea, Aya El Majjaoui, Intza Rubio, Aya Kasmi, Paola Morales, Noa Perez, Jon Garitano, Fabrizio Arguello eta Arene Balzola. Ikasle bakoitzak 30 euroko erosketa-bonoa, marrazteko materiala eta saritutako marrazki guztiekin prestatutako egutegi berezi bana eskuratu dituzte. Datorren urteko lehiaketaren gaia "Elgoibarko gizarte, kultura eta kirol arloetako elkarte eta taldeek antolatutako ospakizunak eta jarduerak" izango da.

Euskarazko produktuen katalogoa banatu du Elgoibarko Udalak ikastetxeetan

Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak Euskarazko Produktuen katalogoaren edizio berria banatu du Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleen artean. Gurasoentzat eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat

ehunka erreferentzia biltzen ditu aurtengo edizioak: musika, DVD filmak, informatika, aldizkariak, liburuak, jostailu eta jokoak, gurasoentzako produktuak... *Katalogoa.eus* webgunean ere kontsultatu daiteke.

Angel Gil eskulturagilearen erakusketa abenduaren 11ra arte



Angel Gil (Burgos, Espainia, 1961) eskulturagilearen erakusketa ikusgai dago Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Abenduaren 11 arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Eskultura figuratiboa da Gilena, eta konta ezin beste erakusketa osatu ditu 1978an Eibarren estreinakoa jarri zuenetik.

Aitor Guisasola elgoibartarra 'Rebelión en la granja' obrarekin arituko da Herriko Antzokian

Aitor Guisasola aktore elgoibartarra Elgoibarko Herriko Antzokiko oholtzara igoko da abenduaren 16an, *Rebelión en la granja* obran. Bilboko Alopargo Teatroaren obra da hau, eta talde horretako kidea da Guisasola. Honela dio sinopsiak: Manor Etxaldeako animalia guztiak elkartu egin dira gizaki guztiak baztertzen dituen matxinada bortitz batean, beren nagusiak, Jones jaunak, ematen dien esklabotza-erregimenagatik nazkatuta eta haserre. George Orwellen fabula ospetsutik sortu dute obra. Sortzaileek diote agian, gaur egungo sasoiaren ispilu konkaboa dela, non botere-egitura berriak ezin diren aurreko botere-egiturekin batera



zeuden itzaletatik atera. "Posible ote da, azken finean, iraultza berri bat zabaltzea?" galdera utzi dute airean. Alopargo Teatroak hainbat sari eskuratu ditu obra honi esker, besteak beste, bost sari jaso zituen Madrilgo Hortaleza Teatroa sariketan eta beste lau sari eman zizkieten Moratalazko Teatro Klasikoaren lehiaketan.

Herriko Antzokiko emanaldia hilaren 16an izango da, 19:00etan eta dagoeneko sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus atarian.

Elgoibarko mezkita ezagutu dute 'Auzoko Familiak' egitasmokoek



Euskaratik, elkarbizitzarako zubi bat eraikitzeke jarri zuten abian *Auzoko Familiak* egitasmoa. Oraingoan, Elgoibarko Tawazol komunitate musulmaneko kideek egin zituzten zubi-lanak, eta Elgoibarko mezkita erakustez gain, Pakistango zein Marokoko jakiak prestatu zituzten. Euskaratik urrun eta euskaratik gertu bizi diren familiak elkartzeko sortu zuten *Auzoko Familiak* (Lehen, *Hurbiltzen*) egitasmoa Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak orain urtebete, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Kanta eta jolasen bilduma banatu du Udalak LH1eko ikasleen artean

Elgoibarko Udalak, Badihardugu elkartearen *Ahotsak ikasgelan* proiektuaren baitan, *Jira bueltan* izeneko liburuxka eta DVDa argitaratu zituen 2018an Eskoriatza, Aretxabaleta eta Eibarko udalekin elkarlanean. Bederatzi ikastetxetako 300 haur baino gehiagok hartu zuten parte egitasmoan, tartean, Elgoibarko Herri Eskolako eta Ikastolako haurrek.

51 kanta eta jolas jaso zituzten guztira bilduman (14 jolas, 30 kanta-jolas eta zazpi abesti). Adineko 60 lekuko baino gehiagoren testigantzetan oinarritutako kantak eta jolasak dira, gehienak Debarrokoak.

Ikasturte honetan ere, ikastetxeetan banatuko du *Jira Bueltan* liburuxka-DVDa Elgoibarko Udalak, Lehen Hezkuntzako 1. mailan, hain zuzen ere. Arduradunek esandakoaren arabera, 4-10 urte bitarteko umeentzat eta haiekin jolastu nahi dutenentzat oso aproposa da.

Liburuxka-DVDan datozen kanta eta jolas guztiak *Ahotsak* Ikasgelan webgunean ere jarri dira herritarren eskura: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>

Santa Zezenia Eguna ospatzeko zirko bilakatu zuten Herriko Antzokia

Kontzertu berezia eman zuten Udal Musika Bandak domekan, Santa Zezenia Egunaren harira. Zirkoa gaitzat hartuta prestatu zuten emanaldia, eta musika pieza bakoitzarekin batera uztartu zuten zirko ikuskizuna. Musikariek gain, magoak, zirkoko aurkezlea, fakirra eta pailazoa izan ziren oholtzan. Txomin Mujika izan zen ohi bezala kontzertuko aurkezlea, baina oraingoan zirkoko aurkezle papera hartu zuen. Gorka Mujika zuzendaria ere Indiatik etorritako Gorki Ben Mujikari fakirra izan zen, Niala magoak magia truko bat ere egin zuten Dimitri Sostachovichen *Vals n^o2* piezan, eta azkenik, Aitore Novatini pailazo italiarra agertu zen oholtzan. Aitor Nova zen. Saxofotzaile bakarlarri moduan aritu zen Fellini obran, eta horrez gain, malabareak eta akrobaziak ere egin zituen. Beti Sua musika eskolako txarangak ere hartu zuten parte kontzertuan, eta ikusleek gogotik gozatu zuten. Beste behin ere, Herriko Antzokia bete egin zuten Udal Musika Bandak, eta zenbait ikusle sartu ezinda geratu ziren.

Domekako kontzertua, bestalde, Anton



Azpiazu eta Jose Mari Kortaberriaren azkena izan zen. Kortaberriak 40 urte egin ditu bandan. Hasieran oboea jotzen zuen, eta gerora saxofoi tenorea jotzen hasi zen, gaur arte. Anton Azpiazu, berriz, 49 urtez izan da bandako kide. Klarinetea jotzen zuen lehenik, eta gerora saxofoi baritonoa jotzen hasi zen. Txalo zaparrada handi batekin agurtu zituzten denak.

'Mateo izeneko opari bat' liburua aurkeztuko dute hilaren 15ean

Displasia Fibrosoaren Elkarteko kideek hitzaldia emango dute abenduaren 15ean gaixotasuna ezagutzera emateko, eta ekitaldi berean *Mateo izeneko opari bat* liburua aurkeztuko dute. Haurrentzako ipuina da. Mateo da protagonista; jaio zenean, displasia fibrosoa eta McCune-Albright sindrome izeneko gaixotasun arraroa diagnostikatu zioten, eta ipuinak Mateoren bizitza kontatzen du, 10 urte betetzen dituen arte.

Displasia fibrosoa gaixotasun arraroa da: zuntz-ehun batek hezur-ehun normala ordezkatzeko du, eta oso hauskor bihurtzen du hezurra. Gutxi gorabehera 15.000 edo 30.000 lagunetik batek du gaixotasun hori. Displasia fibrosoaren elkartea irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta liburuaren salmentatik lortutako dirua gaixotasuna ikertzera bideratuko dute. 18:30ean izango da ekitaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Andres Alberdi euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak

Andres Alberdi euskaltzain oso izendatu du Euskararen Akademiak, Itxaro Bordarekin batera, Donostian egin berri duten osoko bilkuran. Xarles Bidegainen eta Andoni Sagarnaren lekua betetzeko aukeratu dituzte, Bidegain eta Sagarna emeritu izatera pasatu direlako. Orain, zortzi hilabete izango dituzte euskaltzain oso berriek sarrera-hitzaldiak prestatzeko, eta epe berdina izango dute erantzunezko idazkia egin behar duten euskaltzainek beraienak prestatzeko. Andres Alberdi Gorostiaga (Getaria, 1950) Filosofian lizentziaduna da, eta irakaskuntzan aritua 38 urtean. Lehenengo, Elgoibarko Ikastolan; ondoren, Elgoibarko Institutuan, eta bertan, Euskara eta Literaturako katedraduna izan zen 1982tik, harik eta 2011n erretiroa hartu zuen arte. Bakarka zein elkarlanean, DBHko eta Batxilergoko Euskara eta Literaturako hogeitik gora ikasliburu eta gramatika ondu ditu. 1986-



1990 bitartean EGako aztertzaile-taldeko kide izan zen, eta, 1988-1990 urteetan, Azterketa Batzorde Ofizialeko zuzendaritza-kidea ere bai. 2007tik, Euskaltzaindiaren Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko lantaldeko partaide da, eta 2014tik, Euskaltzaindiaren Euskara Batuaren Eskuliburuko batzordeburu. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 2018an.

Abenduaren 12ra arte eman daiteke izena jaiotza lehiaketan, eta lehiaketa bera hilaren 18an izango da

Elgoibarko familia eta lagun taldeentzako Jaiotza Lehiaketa antolatu du Elgoibarko Parrokiak, eta abenduaren 12a izango da izena emateko azken eguna. Jesusen jaiotza irudikatu behar da lehiaketara aurkeztutako jaiotzetan, bakoitzak nahi duen materiala erabilita, eta lanak, gehienez, 75x40 zentimetroko neurria eduki behar du. Gehienez

sei laguneko taldea osatu daiteke, eta partaide berak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu. Interesatuak elgoibarkojaiotzak@gmail.com helbidera idatzita eman beharko dute izena. Lehiaketa bera abenduaren 18an egingo dute. Parrokiako arkupean aurkeztu beharko dira lanak, eta meza ostean egingo dute sari banaketa.

El Drogas-ek zutik jarri zuen Herriko Antzokia



Joan zen barikuan kontzertua eman zuen Enrique Villarreal El Drogas-ek Herriko Antzokian, eta ikusleak eserlekuetatik jaiki zituen abeslari nafarrak. Barricada talde ezagunaren 40 urteko ibilbidearen errepaso egin zuen taldearen abestirik ezagunenak bata bestearen atzetik joz, ia etenik gabe. Abeslaria gustura zegoen oholztan, eta ikusleak ere bai. Sarrera guztiak agortuta zeuden kontzerturako, eta lehenengo doinuak entzuten hasi ziren unean bertan nabari zen emozioa ikusleengan. Bi ordu eta erdiko kontzertua eman zuen Barricadako abeslari ohiak.

EOLIKOEN KONTRAKO EOLIKOA

✍ Ainhoa Andonegi

📍 Ainhoa Andonegi / Karakate Bizirik

Karakate Bizirik plataformak deituta, Karakate gainean eraiki nahi duten parke eolikoaren kontrako ekimena egin zuten zapatuan herriko erdigunean. Hain zuzen ere, dorre eoliko bat irudikatu zuten, Kalegoen plazatik Kalebarren plazara bitartean. 300 bat lagun bildu ziren guztira, eta aterki beltzekin osatu zuten dorre eoliko. Ekitaldiaren ostean talde argazkia atera zuten Kultur Etxe aurrean. Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](https://www.barren.eus)





Danobatgroup-ek Euskararen Eguna eta Euskaraldiaren amaiera ospatzeko lehiaketa kaleratu du aurten berriz ere

- **'Euskaraz izango gara'** leloa mantenduz, aurten ere Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Nazioarteko Eguna eta Euskaraldiaren amaiera ospatzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta orokorrean gizarte osoari zuzenduta dago.
- Orain 22 urtetik hona ari da kooperatiba taldea bere egunerokotasuna euskaraz izateko lanean, eta Euskaraz izango gara leloak modu argian jasotzen du erabaki eta konpromiso hori.
- Indarrean dagoen 2021-2024 euskararen plan estrategikoko erronka eta helburuen markoan kokatzen da lehiaketa.

Danobatgroup industria taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan. Danobatgroup kooperatibaz gain, Danobat, Soraluze, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Danobatgroup-ek harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu. Baina Euskal Herriko lantegietako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du, eta horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Euskaraz izango gara da Danobatgroup-ek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan... Baina, egunerokotasunetik haratago, gizarteari ere

euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi dio Danobatgroup-ek. Ildo horretan, Danobatgroup-ek inguruan garatzen diren hainbat ekimenetan parte hartzen du, eta ekimen sozial horietako askoren sustatzailea ere bada, Euskaraldia kasu. Euskararen Nazioarteko Eguna eta Euskaraldiaren amaiera ospatzeko aurten berriz ere lehiaketa antolatu du, Danobatgroup kooperatiba taldeak enpresak dituen herrietara zein gizarte osora zabaldua.

Lehiaketan parte hartzeko, ondorengo helbidean sartu behar da:

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2022.html>

Erantzunak Danobatgroup-eko webgunean aurkitu ahaliko dira. Abenduaren 14ra arteko epea egongo da lehiaketan parte hartzeko, eta erantzun zuzena eman dutenen artean produktu ekologikoz betetako otarre bat zozkatuko da.

Euskaraz izango gara.





OSTEOPATIA

Victoria Iraegui

Osteopata kolegiatua: 0299 zk.

TEKNIKAK: Pediatrikoak / Egiturazkoak /
Garezurrekoak / Erraietakoak /
Somato-Emozionalak / Posturologia/
Drainatze linfatikokoak

Zer tratatzen du osteopatiak teknika hauek erabilita?

- ☑ Ziatika, lunbalgia, drosagiala, tortikolia, zartada zerbikala...
- ☑ Estresa, prozesu depresiboak.
- ☑ Baraileko oklusioa, brusismoa, akufenoak, bertigoak, migrainak, hortzetako oklusio txarra eta estabismoa.
- ☑ Kirol-lesioak, bihurrituak, luxazioak, muskulu-kontrakturak.
- ☑ Erditze aurrekoa, haurdunaldia eta erditze ondokoa.
- ☑ Mastektomiak, orbainak eta kirurgia osteko edemak
- ☑ Digestio-, urologia- eta neurologia-arazoak.

HAURTXOETAN:

Insomnioa, bularreko haurraren kolikoa, gehiegizko negarrak, arreta-arazoak, estrabismoa...



659 332 423 - 943 740 770
victoriairaegui@gmail.com



Pedro Migel Urruzuno 21 behea (Urnobitza alboan)



ARAMBURU
BITXI-DENDA

600€-ko
bi bale

ZOZKETA

20. URTEURRENA
ONATI

60 URTEURRENA ELGOIBAR

Elgoibarko dendaren **60. urteurrena** eta Oñatikoaren **20. urteurrena** dela eta, gure bezeroen konfidantza eta fideltasuna eskertu nahi dugu.

Eta, horretarako, abenduan gurean erosketak egiten dituzten herritarren artean,


600 euroko bi bale zozketatuko ditugu.

Eskerrik asko urte guzti hauetan gudan izan duzuen konfidantzagatik!

San Frantzisko kalea, 26
Elgoibar
943 742 535

EXPRESS ESKAINTZAK!

KD50X73KPAEP SONY TELEBISTA



599 €

- 4K UHD ● Smart TV
- HDR 10 ● Bravia cam
- Alexa eta google laguntzailea
- Dolby vision ● Dolby atmos
- HDMI ● USB
- Bluetooth ● Serie X81

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



SASKIBALOIAN HAZIA EREIN NAHI DUTE EMAKUMEEK ELGOIBARREN

✍️ Asier Orbea

Emakumeen Saskibaloitza Taldea sortu nahi duten emakume talde batek laguntza eskatu dio BARRENI, emakumez osatutako herriko lehen saskibaloitza taldea sortu ahal izateko prest dauden lagunak behar baitituzte. Eguenetan entrenatzen dira Olaizaga kirolegian, bazkalostean, eta han elkartu gara beraiekin.

A din eta jatorri askotariko 15 eta 34 urte bitarteko zazpi emakume ari dira oraingoz entrenamenduetan, eta horietako lau azaldu dira hitzordura: Paula Soler, Cristina Lozano, Selma San Miguel eta Nagore Soto. Solerrek eta Lozanok bakarrik dute eskarmentua saskibaloian. Alicantekoa da lehena eta lehen nazional mailan jokatutakoa da han; Lozano berriz, lan kontuengatik Elgoibarrera iritsi den asturiarra da, eta bere jaioterrian jokatzen zuen saskibaloian. "Maila apalean", zehaztu

du. Gainerako bostek, gazteenek, ez dute esperientziarik kirol federatuan. "Eskola kirolean jokatu nuen saskibaloian, 10 bat urte nituenean", dio Selma San Miguelek, sortzez kantabriarra den elgoibartarrak. Gogoko dute saskibaloia, "kirol dinamikoa" eta "emozio handikoa" delako. "Izugarri zirrarragarria da, azken segundora arte ez baita jakiten nork irabaziko duen, eta nik beti topatu dut giro ona ibili naizen saskibaloitza taldeetan. Familia bat modukoa da", esan du Lozanok. Hemen bizi denetik Baskoniaren jarraitzaile sutsua egin dela dio, eta hori esan eta bat Gasteizera elkarrekin partida bat ikustera joateko plana egiten hasi dira. Solerrek Emakumeen Saskibaloitza Liga jarraitzen du, eta Euskal Herrian puntako taldeak daudela nabarmendu du: Lointek Gernika, Araski eta IDK Euskotren.

Saskibaloia taldeko kirol zabalduenetariko den arren, Elgoibarren zaletasun izugarria duten lagun gutxi batzuen ahaleginari esker eutsi dio bizirik taldeak azken urteetan. Pare bat denboralditan ez zen egon talderik, 2017tik 2019ra bitartean, jokalaria faltagatik. Azken sasoian, baina, indarberrituta dabil taldea eta kimu berriak ere irten zaizkio. Estreinakoz bi talde osatu ahal izan dituzte denboraldi honetarako, senior eta junior mailakoak. Gazteak saskibaloira erakarrita, klubaren egitura sendotu eta taldearen etorkizuna ziurtatu nahi dute taldeko beteranoek, erretiroa hartu aurretik. Eta, horrekin batera, emakumezkoen saskibaloia

taldea sortzeko ahaleginean dihardute.

Paularekin hasi zen dena. "Umetatik jokatu dut saskibaloian eta hona etorri nintzenean ere jokatzen jarraitu nahi nuen. Emakumeen talderik ez zegoenez, gizonekin entrenatzen hasi nintzen, ezaguna dudalako jokalaria bat eta hark gonbidatu ninduelako. Halaxe hasi nintzen joan den neguan. Denbora honetan beti aipatzen genuen, erdi txantxetan, emakumeen talde bat sortu beharko genukeela niri lekua egiteko, gogotsu ikusten nindutelako", azaldu du. Txantxa artean aipatutako asmo haiek, baina, hezuramaitzen hasi ziren taldeko zenbait kide emakumeen taldea sortzeko lehen pausoak ematen hasi zirenean. "Eta orduan ailegatu ziren Selma eta bere lagunak taldera", dio. "Zurrumurrua iritsi zitzaigun, emakumezkoen saskibaloia taldea sortu nahi zutela, eta Carlosekin [Carlos Lahoz] harremanetan jarri ginen saskibaloian jokatu nahi dugun lau lagun", azaldu du Selmak. Abiapuntua izan zen.

PAUSOZ PAUSO

Lehen entrenamenduetan euren buruak "oso berde" ikusi zituztela onartu duten arren, lehen saiotik hurrengoetara aurrerapenak nabaritu dituzte. "Normala da, hutsetik abiatu baikara. Gogoia eta intentzioa jarri zituzten, eta garrantzitsuagoa dena, gure artean giro oso ona sortu zen hasieratik". Eskarmenturik handiena berak duenez, entrenatzaile lanak egingo ditu, baina lanagatik dezentetan huts egin beharko duela-eta Carlos Lahoz izango du bidelagun taldearen gidaritzan. "Hark ere nahikoa lan dauka, juniorren entrenatzailea ere badelako eta senior mailako jokalaria. Guri laguntzeko prest agertu da eta asko eskertzen diogu, esperientzia eta jakituria handia baitauka kirol honetan. Lagungarri izango zaigu". Euren helburuaz galdetuta, bidea pausoz pauso egin nahi dutela diote. Lehen urtea elkar ezagutzeko eta oinarriak jartzeko erabili nahi dute, eta bigarrenengoan, inguruko ligarik baxuenean lehiatu. "Motibazioa bat izango litzateke hori. Horregatik, orain behar duguna da neska gehiago batzea taldera, talde sendo bat osatzeko. Gizonekin entrenatzerakoan euren gan ikusi dudana gogoia, seriotasuna eta lagun artea nahiko nituzke eduki emakumeen taldean ere. Badakit hasiberriak garela, dena

"Jaio berria den gauza bat hazten ikustea ilusionagarria ere bada, eta prozesu honen parte izan nahi dugu guk, eta gurekin bidea egitera animatzen direnek"



dugula egiteko, inoiz ez baita emakumeen saskibaloia talderik egon Elgoibarren. Hortaz, bidea irekitzeak ilusio berezia egiten digu. Errazagoa zatekeen egitura sendo bat daukan talde batera batzea, Sanlo eskubaloia taldera esaterako, baina aldi berean jaio berria den gauza bat hazten ikustea ilusionagarria ere bada, eta prozesu honen parte izan nahi dugu guk, eta gurekin bidea egitera animatzen direnek. Ia animatzen diren Elgoibarko edo inguruko herrietako neska". Primeran pasako dugu", esan du.

Hodei Ezpeletak irabazi du Euskal Herriko aizkolarari txapelketa, bigarren urtez jarraian



Bera zen txapela jantzeko faborito nagusia, eta egungo txapelduna, eta ez du hutsik egin mendarorarrak. Bigarren urtez jarraian jantzi du txapela Hodei Ezpeleta *Biurrik*. Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatu zuten Euskal Herriko aizkolarari txapelketako finala, hilaren 27an, sei aizkolarik: Xabier Zaldua, Iban Resano, Luis Mari Txapartegi, Jokin Urretabizkaia Basozabal eta Joxean Etxeberría. Lau kana-erdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko zituzten ebaki beharrekoak. Lehia estua izan zuen Ezpeletak bigarren egin zuen Xabier Zalduarekin. Momentu batzuetan gainera etorri zitzaion Zaldua eta estutu ere

egin zuen, baina azken oinbikoetan kendu zion alde. Zalduari adar-begi bi ere egokitu zitzaizkion momenturik erabakigarrienean eta gaiztotu zitzaion lana. Ezpeletak 47 minutu eta 42 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko, eta 49 minutu eta 47 segundo, Zalduak. Finala bukatu berritan sufritu zuela aitortu zuen 23 urteko mendarorarrak eta denborei erreferentzia eginez eta oso berea duen umiltasunez aipatu zuen historian denbora hobek egin izan dituzten aizkolaririk izan direla eta horrek erakusten duela lanean jarraitu beharra dutela: "Zer hobetu handia daukagu eta lanean jarraitzea dagokigu".

Arrizabalagak eta Condek txapela jantzi dute Gipuzkoako txapelketan

Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu zituzten Astigarragan, domekan. Gomazko paletako hiru mailetako finalak, hain justu ere. Elgoibarko Lagunak pilota eskolako bikote batek, Beñat Arrizabalagak eta Ander Condek osatutakoak, 3. mailako finala jokatu zuen, eta Zarautz taldeko Mikel Contreras eta Aritz Lertxundi izan zituzten aurkari. Elgoibartarrek 25 eta 19 irabazi zuten finala, eta era honetan, bigarrenkoz irabazi dute nagusien 3. Mailako txapelketa, 2017an ere gailendu baitziren. Garaipen honi esker, datorren denboraldian 2. Mailan lehiatuko da Lagunak taldeko bikotea. Taldeko lau palista bikote ari dira Gipuzkoako txapelketan lehiatzen. Horietako bat



1. Mailan lehiatuko da datorren urtean, bi bikote lehiatuko dira bigarren mailan eta hirugarren bikotea 3. mailan.

Iosu Rodriguezek hirugarren egin du Pragan jokatu duten Munduko Kulturismo txapelketan

Munduko Kulturismo Txapelketa jokatu zuten joan den azaroaren 19an, Pragan (Txekiako Errepublikan), eta kulturista profesionalen artean lehiatu zen estreinakoz Iosu Rodriguez Arroyo, 32 urteko elgoibartarra. Kulturismoan edo gorputzgintzan 'betidanik' aritu den arren, 2019an hasi zen lehiatzen, eta

orain arteko emaitzarik onena eskuratu du Txekian, brontzezko domina irabazita. Kulturista korear batek lortu zuen lehen postua eta italiar batek bigarrenkoa. Bi adar daude kirol honetako txapelketetan. Batetik, Federación Española de Fisicoculturismo y Fitness (IFBB) federazioak antolatutako txapelketak daude. Normalean, ez da doping kontrolik egoten. Eta, bestetik, Asociación de Culturismo Natural (AFN) eta World Natural Bodybuilding Federation (WNBF) federazioak antolatutako txapelketak daude. Horietan, bestean ez bezala, dopinaren aurkako kontrolak egiten dituzte. WNBF federazioak antolatutakoa izan da Txekiakoa, eta ezaugarri hori nabarmendu nahi du Rodriguezek. "Kulturismo naturalean lehiatzen naiz ni, jan eta lan eginda landu ditut giharrak, beste ezeren beharrik gabe,



eta kontrolak pasatzen ditugu hori horrela dela egiaztatzeko". Munduko txapelketan lehiatu ahal izateko sailkapena Espainiako txapelketan lortu zuen elgoibartarrak. Kategoria ezberdinak daude eta "Mens Fitness" izenekoan parte hartu zuen berak. "Valentzian jokatu genuen Espainiako Txapelketa, urriaren 15 eta 16an. Hogei kulturista lehiatu ginen, eta lehen hiruren artean sailkatu nintzen. Gero, aurreneko bost sailkatuek jokatu genuen Munduko txapelketara sailkatzeko saioa, Kordoban. Bigarren sailkatu nintzen han, lehenengoarengandik oso gertu, eta epaimahaikideek ere hori nabarmendu zuten, oso alde txikia egon zela bion artean. Irabazi ez arren, txartel profesionala jaso nuen, kulturista amateur izatetik profesionala izatera pasa zarela adierazten duen txartela".

Maite Maiora izan da azkarrena Azkoitiko Herri Lasterketan

Joan den urtean lortu zuen garaipena errepikatu du Maite Maiora saltakari mendarorarrak Azkoitiko XVII. Herri Lasterketan. Azaroaren 26an jokatu zuten 10 kilometroko lasterketa, eta Maiorak 37 minutu eta 34 segundoan osatu zuen ibilbidea. Emakumeen lasterketako podiumeko bigarrena ere iazko bera izan zen, Idoia Nogales (39:01), eta Eneritz Iraola (40:06) sailkatu zen hirugarren postuan. Gizonezkoetan, azpeitiko bizilaguna den Aitor Mimenza elorriorra gailendu zen, 30:46ko denborarekin.



LANA**Eskaerak**

Goizetan umeak eskolara eramateko prest nago, eta arratsaldeetan zaintzeko prest ere bai. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia daukat eta euskalduna naiz.
615 759 069

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. **641 739 472**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
642 577 823

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
642 578 943

Adinekoak zaintzeko prest nago. Tituluak eta esperientzia ditut. Etxeko langile moduan, orduka edo gauetan lan egingo nuke.
697 730 662

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauetz edo asteburuetan. Etxeko langile moduan ere bai.
652 020 464

Adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldeko lanetan aritzeko prest nago. Esperientzia daukat.
647 533 201

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Lorezaintzan ere esperientzia daukat. **624 127 147**

Adinekoak zainduko nitzuke, gauetz. Ospitalean ere bai. Esperientzia handia daukat. Etxeko lanak eta garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan egoteko prest.
643 977 786

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
624 579 899

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
631 341 616

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
662 460 266

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
613 558 760

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egiten ditut. **602 342 429**


Umeak eta adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egiten ditut. Esperientzia handia dut lanotan. **685 724 861**

Geriatrico laguntzailea. Adinekoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest nago. Erreferentzia onak eta esperientzia handia ditut.
660 511 781


Klase partikularrak emateko prest gaude, astelehenetik ostiralera, 15:15etatik 19:15era edo 20:15etara. HH, LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat.
688 610 755

ETXEBIZITZA

Etxe polita alokatzen dut, San Frantzisko kalean. 4. pisua, igogailurik gabe. Gela bakarrekoa da, egongelarekin.
660 042 159 (arratsaldez deitu)

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enpleu Administrazioaren Lanarile Kontsekoa</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure eraikina zaharra da eta aurreko aldera dauzkagun egurrezko balkoiak nahiko egoera txarrean daude. Bai balkoiak zein fatxada oso egoera txarrean daude, eta horren ondorioz, hezetasun arazoak agertu dira barruko aldean ere. Aurreko batzar batean fatxada konpontzea adostu genuen, baina baita bizilagun bakoitzak bere balkoia konpontzea ere. Jakin nahiko nuke balkoiak konpontzea nori dagoekin.</p> <p>Fatxada eraikineko elementu komuna da: batetik, eraikinaren aurrealdearen estalkia da, eta bestetik, kanpo itxura konfiguratzeko du. Eguraldiak zuzenean eragiten dio fatxadari, kaltetzeraino. Horregatik, aldiro-aldioko zaintza ezinbestekoa du fatxadak, nahiz oso gutxitan egiten diren halakoak. Baina kalteak agerikoak direnean lehenbailehen ekin behar zaie berritze lanei, besteak beste arriskua dagoelako zatiren bat kalera jausi eta hirugarren pertsoneri kalteak eragiteko.</p> <p>Balkoiak fatxadako elementuak dira. Horregatik, etxejabeen komunitatearen ardura da haien konpontzea. Bai, kanpo aldetik zein barrutik, isolamendu edo bakartzeko funtzioa egoki bete dezaten.</p> <p>ONDORIOA: Etxejabeak ezin du balkoia aldatu edo konpondu horren konpetentzia komunitatearena delako. Komunitateak balkoiak berritzeko eta zaintzeko betebeharra du, eta hala behar izan gero, baita aldatzeko ere.</p>  <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Eire!** Asteartean 7 urte! Jarraitu beti bezain alai! Muxu erraldoi bat etxekoen eta, bereziki, Iratiren partez.



Zorionak, **Aitana!** Igandean 9 urte beteko dituzu! Ondo pasa zure urtebetetzean. Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Ane,** abenduaren 11n 7 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna etxekoekin eta lagunekin.



Abenduarekin batera iritsi da zure eguna ere! Zorionak, **Lea!** Patxo bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Itziar** eta **Alberto!** Zilarrezko ezkontza ospatzeko prest gaude! Patxo handi bat familiakoen eta, bereziki Anikeren partez.



Zorionak, **Aimar,** igandean 9 urte beteko dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Muxu potolo asko familiakoen eta, batez ere, Liberen partez.



Zorionak, **bikote,** 5 eta 7 urte bete dituzuelako. Jarraitu orain arte bezain alai. Etxeko denon partez.

BARREN astekaria

ADI! Telefono zenbaki berria dugu:

 **688 655 658**

Whatsapp mezuak bidaltzeko **zenbaki berria** erabili behar duzue aurrerantzean!



KONTSULTATEGIA

“ Zer dira FirstFit karilla estetiko gidatuak? ”

Munduko hortzetako estetikako tratamendurik aurreratuena da. Karilla estetiko gidatuak FirstFit teknologia odontologikoak sortutako prozesu digital baten bidezko tratamendua da. Karillak jartzeko orduan erabiltzen den prozedura oso azkarra da eta ez da batere inbaditzailea. Teknika hau erabiliz bezeroak nahi duen irribarrea proiektu daiteke tratamendua hasi aurretik, hau da bezeroak azken emaitza nolakoa izango den ikusi ahal izango du aurrez.



Eskatu zure irribarrearen azterketa,doan!

Modu horretan bezeroak gehien gustatzen zaion irribarrea aukeratu ahal izango du aurrez eta nahi dituen aldaketak egin.

Hortzen egitura erabat kontserbatzen da, hortz eta hortzoei kalte egin diezaieketenak behin-behineko hortzak saihesten baitira.

Laster hasiko gara teknika honen erabilerarekin Aldaz hortz klinikan! Zatoz eta informa zaitez!

ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

3 ZAPATUA

10:00 Informazio mahaia: Desgaitasuna duten pertsonen nazioarteko eguna. Nuala elkarteak eta Gizarte Zerbitzuen Sailak antolatuta, Kalegoen plazan.

8 EGUENA

18:00 Hitzaldia: Parkinsona ezagutu. Deparkel elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Nahia Mugertza elkarteak arduradunak eta Nerea Fernandez elkarteak psikologoak emango dute.

10 ZAPATUA

10:00 Kontzezio Azokaren zabaltzea. Mendaron.

14 EGUAZTENA

19:30 Aurkezpena: 'Uda betea' liburua. Aritz Gorrotxategi eta Maite Lopez de Las Herasek egingo dute, Durangoko Azokaren egitarauaren barruan. Pitxintxu liburu dendan.

15 EGUENA

18:30 Aurkezpena eta hitzaldia: 'Mateo izeneko opari bat'. Bergarako Displasia Fibrosoaren elkarteak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 BARIKUA

18:30 Zine foruma: 'Ni uno menos'. Haizeak antolatuta, Lilan. Mokadutxoak ere emango dute.
18:30 Antzerkia: 'Rebelión en la granja'. Herriko Antzokian. Sarrerak: *herrikoantzokia.eus*

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

☎ **943 743 704**
 📞 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk.
 20870 ELGOIBAR





Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00		
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00		
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)		
ABENDUA	Egunez	Iluntzean
2 BARIKUA	■ Fernandez	Yudego
3 ZAPATUA	Yudego	Yudego
4 DOMEKA	Yudego	Yudego
5 ASTELEHENA	■ Oruesagasti	Yudego
6 MARTITZENA	Yudego	Yudego
7 EGUAZTENA	■ Ibañez	Barrenetxea
8 EGUENA	Oruesagasti	-----
9 BARIKUA	Arriola	Arriola
10 ZAPATUA	■ Fernandez	-----
11 DOMEKA	■ Fernandez	-----
12 ASTELEHENA	Yudego	Yudego
13 MARTITZENA	■ Oruesagasti	Garitaonandia
14 EGUAZTENA	Barrenetxea	Barrenetxea
15 EGUENA	■ Ibañez	Arriola
16 BARIKUA	Garitaonandia	Garitaonandia
■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
Urte guztian, gauez: 22:00-09:00 Esther Mendiñueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106		

Zinea



'Kepa Junkera, berpiztu'

2 barikua: 19:00

4 domeka: 19:00

3 zapatua: 19:00/22:15

5 astelehena: 21:00

'Nire zirkua'

4 domeka: 16:30

'Utama' (Ongarri)

7 eguaztena: 21:00

'El cuarto pasajero'

9 barikua: 19:00

11 domeka: 19:00

10 zapatua: 19:00/22:15

12 astelehena: 21:00

'Un heroe samurai: La leyenda de Hank'

11 domeka: 16:30


'Moonage daydream David Bowie' (Ongarri)

14 eguaztena: 21:00




Mari Ecenarro Goristidi

2022ko azaroaren 28an hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Inacita Regil Irureta

2022ko azaroaren 30ean hil zen, 93 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
 Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Jesusa Urain Arrieta

2022ko azaroaren 26an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure babesean hazten ikusi gaituzu,
gure argi, gure sustrai.
Luze joan dira azken egunak,
ez gintuzun bakarrik utzi nahi.
Elkar maitatzen jarraituko dugu, amama,
hemen geratuko gara elkarren zai.
Denborak eten dizu bizitzaren azken haria,
egizu orain hegan libre, hegan lasai.***

Etxekoak



Felix Etxeberria Gerenabarrena *"Kartutxo"*

2022ko azaroaren 24an hil zen, Bilbon.

***Ez zara gure artetik joango,
zure goxotasuna
eta barre algarak
gugan betirako dira izango.***

Lagunak



II. URTEURRENA

Maria Ansola Arrieta

"Azkube"

2020ko abenduaren 1ean hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da,
domekan, abenduaren 4an, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Etxekoak



Gabon hauetan oparitu ongizatea




Bonu pertsonalizatuak:


- ✓ Yoga indibiduala.
- ✓ Yoga indibiduala + erlaxatzeko masajea.
- ✓ Yoga bikotean.
- ✓ Yoga taldean (familia, empresa...)
+ gosaria, askaria edo bazkaria aukeran.
- ✓ Erlaxatzeko masajeak.

Animatu!

☎ 667 742 118

(Erreserbatu zure lekua)

 (Opari-bariela
pertsonalizatuak)

 @yogaesentzia

BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA!**

1.500 erregalu baino gehiago...

Aurten bai! Aurreko urteetan
TONBOLAK izan duen estimazioak
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik
aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Poltsak



Manpasa



Mendirako motxila
eta makila



Ilerako produktuak



Motxilak eta
nesezerreak



Kuxinak



Kantinplorak



Pontxoak



Kafea



Diru-zorroak



☎ 643 499 169

☎ 943 741 626

✉ elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Etxebizitza eksklusiboak Eibarren bih[♥]otzean



Errebal plazaren ondoan

Gimnasioa

—
Garaje eta trastelekua

—
Gourmet aretoa